




GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES DE GIPUZKOA

Batzarkide Talde Mistoa (ARALAR)  
Grupo Juntero Mixto (ARALAR)



## MAHAIARI

**REBEKA UBERA ARANZETAK**, ARALAR Taldeko Batzarkide denak, organo horren aurrean ondorengoa AZALTZEN DU :

Idatzi honen bidez eta Batzar Nagusien Jarduerarako Araudiaren arabera, honako **INFORMAZIO IDATZIA** eskatzen dio Giza Eskubideetarako, Enplegurako eta Gizarteratzeko Foru Diputatuari :

Abenduaren amaieran jaso genuen itxoite zerrendei buruz Departamenduak gure galderei egindako erantzuna. Emandako informazioaren arabera epe ertainean 100 plaza berri beharko dira Gipuzkoan gizarte bazterketako egoera saihesteko edo konpontzeko beharrean egongo diren kolektiboetara zuzenduta.

Gure taldeak jakin nahi du 2006garren urtean ustez beharko diren 100 plaza horietatik zenbat sortuko diren aurrean. Zenbat diru gastatuko den plaza berri horiek sortzeko. Eta zein dirulerrotatik aterako den gastatu behar den diru hori. Halaber, gure taldeak jakin nahi du aurrean sortu behar diren plaza horiek zein kolektibori zuzenduta egongo diren, adibidez

- Genero bortxakeriaren biktimak.
- Etxegabeak.
- Toxikomanoak.
- Etorkinak.
- Preso ohiak.
- Gutxiengo etnikoetako familiak.
- Egonaldi motz, ertain eta luzeko bizilekuak.
- Gizarteratze sozio-laborala.
- Larrialdietako zentroak.
- Gazteak 18-23.
- Emakume baztertuak.

## ZIOA

Talde honen jardura politikorako guztiz beharrezkoa da informazio hori eskuratzea Foru Aldundiaren Gobernuak daraman politika baloratu ahal izateko.

Donostia, 2006eko martxoak 9

Rebeca Ubera Aranzeta  
ARALAR Batzarkide Taldea